

BULTZATU

ATZOKOAN FINKATUZ, GAUR BIHARKOA BULTZATU

Halaxe dio Sabino Arana Fundazioaren goiburuak... Eta erara dator 2017. urtean bete baitziren 100 urte Euzko Alderdi Jeltzaleak udalez gaindiko herri-erakunde baten agintea eta gidatzeko ardurak eskuratu zituenetik, 1917ko martxoaren 11n eginiko hauteskundeak gehiengo osoz irabazi ondoren, hain zuzen. Ondorioz, Balmasedako barrutitik aukeratu izan zen Ramon de la Sota Aburto izan zen Euskadiko lehenengo lehendakaria, berak izenpetu ohi zuen legez.

Gaiak ez zukeen aparteko garrantzirik izango baldin eta abertzaletasun historikoa XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran hezuramaitzen ari zen egitasmo politikoa, ekonomikoa, kulturala eta linguistikoa mugarri esanguratsua bilakatu izan ez balitz. Ezen Ramon de la Sota eta bere taldekideak ez baitziren Bizkaiko Foru Aldundiaz¹ arduratu, besterik gabe; aitzitik, egitasmo zabala zekarten, herritarren bizi-baldintzak hobetzea eta gure Herria biziberritzea helburutzat zuen egitasmo politiko sendoa.

Herritarren bizimodua errazteko herri-lanak (errepide-sarea, portuak eta abar); erakundetzearen aldeko apustu irmoa, foru aldundien gaineratik zegokeen erakunde bat iradokiz -alor horretakoak ditugu, besteak beste, Primo de Rivera diktadoreari lau diputazioek eginiko autonomia eskakizuna, bai eta 1931eko

1. Orduan, Bizkaiko Lurralde Diputazioa.

El lema de la Fundación Sabino Arana aboga por asentarse en el pasado para impulsar el presente y el futuro... Una máxima ciertamente adecuada en la actualidad, puesto que en 2017 se cumplieron 100 años desde que el Partido Nacionalista Vasco se hiciera con el gobierno de una administración pública supramunicipal y la consiguiente responsabilidad de gestionarla, después de vencer por mayoría absoluta en las elecciones celebradas el 11 de marzo de 1917. A consecuencia de ello, Ramón de la Sota Aburto, elegido por la circunscripción de Balmaseda, se convirtió en el primer lehendakari de Euskadi, tal y como acostumbraba a firmar.

Dicho acontecimiento no tendría especial relevancia si el proyecto político, económico, cultural y social que comenzó a fraguar el nacionalismo histórico a finales del siglo XIX y comienzos del XX no se hubiera convertido en un hito de gran relevancia. Y es que Ramón de la Sota y sus colaboradores no se encargaron, sin más ni más, de la Diputación Foral de Bizkaia¹; trajeron a la institución un proyecto ambicioso, un proyecto político sólido que pretendía mejorar las condiciones de vida de la ciudadanía y construir, ladrillo a ladrillo, nuestro Pueblo.

Las obras públicas para facilitar el día a día de la ciudadanía (la red de carreteras, puertos y otras infraestructuras); la apuesta decidida por la institucionalización, sugiriendo una entidad

1. Entonces, Diputación Provincial de Bizkaia.

ERRAMUN OSA

EUSKALTZAIN URGAZLEA ETA EUSKALTZAINDIKO IDAZKARIORDEA

Lizarrako estatutuaren printzipioak ere- eta Nafarroaz gainera, mugaz bi aldeetako erakundearen arteko harremanetan sakontzeko borondatea; auzo eskolen sorrera eta euskararen irakaskuntzaren sustapena; Bizkaiko Foru Aldundiaren barruko zein kanpoko jardunean euskarari ofizialtasun praktikoa aitortzea²; Euskal Kultura Batzordearen ekimenez antolatutako Oñatiko kongresua, 1918an -Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren sorrerak ekarriko zituen; eta abar aipa litezke begirada eta arnas luzeko egitasmo haren inguruarrean, gerora, gure herriaren garapenerako garrantzi handikoak izan direnak.

Hain zuzen, 2018ko urtarrilaren 12an bete dira ehun urte Cosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatu jeltzaleek Euskararen Akademia sortzeko proiektua Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu zutenetik. Proiektu horretan, euskara biziberritzeko zeuden zailtasunak, euskararen hiztun elkartearen egoerari buruzko kezka, sortzeko zegoen erakunde horren zereginak, funtzionatzeko oinarritzko jarraibideak eta abar agertzen ziren... bai eta erakunde berri horretan euskararen lurralde guztiak kontuan hartu behar zirela jaso ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua aztertu eta onartu zuen, 1918ko urtarrilaren 25ean. Nolanahi ere, zortzi hilabete beranduago abian jarri zen, 1918ko irailean eginitako Oñatiko bilkura esanguratsuen ondoren, hain zuzen, Sota eta bere taldekideek gainerako euskal lurraldeekin, bai eta Ipar Euskal Herriko euskaltzaleekin ere, egitasmoa bideratu nahi baitzuten.

superior a las diputaciones forales -dentro de esa iniciativa han de enmarcarse la petición de autonomía hecha por las cuatro diputaciones al dictador Primo de Rivera, además de los principios recogidos por el Estatuto de Lizarra de 1931- y la voluntad de estrechar relaciones entre las instituciones de ambos lados de la muga, además de las instituciones navarras; la creación de las llamadas escuelas de barriada y la promoción de la enseñanza en euskera; el reconocimiento de una oficialidad práctica del euskera en la actividad tanto interna como externa de la Diputación Foral de Bizkaia²; el congreso de Oñati de 1918, auspiciado por Junta de Cultura Vasca -el cual promovió la creación de Euskaltzaindia y de la Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza- y otras muchas iniciativas pueden mencionarse en torno a ese proyecto de amplia perspectiva y largo alcance, el cual tuvo capital importancia en el desarrollo de nuestro pueblo.

Precisamente, el 12 de enero de 2018 se han cumplido 100 años desde que los diputados jeltzales Cosme Elgezabal y Félix Landaburu presentaron en la Diputación de Bizkaia el proyecto de creación la Academia del Euskera. En dicho proyecto, se recogían las dificultades para la promoción del euskera, las preocupaciones de la comunidad de vascohablantes, las funciones de esa entidad que se pretendía crear, las orientaciones básicas del funcionamiento de la misma y otros aspectos, así como que en la creación del nuevo organismo debían de tenerse en cuenta todos los territorios del euskera.

La Diputación Foral de Bizkaia analizó el proyecto y lo aprobó el 25 de enero de 1918. En cualquier caso, se puso en marcha ocho meses más tarde, precisamente, después del relevante congreso de Oñati en septiembre 1918, puesto que Sota y sus colaboradores querían encauzar el proyecto junto con los demás territorios, así como con los vascófilos del País Vasco continental.

El esfuerzo por alejar el euskera de la vía de la desaparición y encaminarlo hacia su recuperación, la promoción de la cultura vasca, la búsqueda del bienestar de las y los ciudadanos -poniendo a la ciudadanía en el centro de la política-, la institucionalización del País Vasco... iniciativas todas ellas sembradas ayer, con una influencia notable en el hoy y en el mañana, y convertidas en características firmes de la

2. Sabino Arana Fundazioak gai hori aztertu zuen 2016ko otsailaren 19an, "Euskara Foru Aldundien ibilbidean" izenburuko mintegian.

2. La Fundación Sabino Arana ya trató dicho tema el 19 de febrero de 2016, en un seminario que llevó por título "Euskara Foru Aldundien ibilbidean".

Euskara galzoritik biziberritzera eramateen saiatzea, euskal kultura suspertzea, herritarren ongizatea bilatzea -herritarra politikaren erdigunean jarriz-, Euskal Herriaren erakundetzea... horra atzokoan ereindakoak, gaur eta biharkoan eragina dutenak, eta EAJ alderdiaren jardunaren ezaugarri gotor bilakatu direnak: Euskal Herriaren garapena ahalbidetzeko, unean uneko egoerak eskaintzen dituen zirrikituak baliatzeko konpromisoa, betiere herri honi bere historiagatik dagozkion eskubideei uko egin gabe eta berorien gauzatzeari begira. Aurreiritziak alboratuz, desberdinekin akordioetara iristeko jarrera erakutsiz, adostasun horiek herri honek aurrera egiten laguntzeko baliagarriak diren neurrian. Euskararen lurraldeak denboran berrosatzen joateko ekimena, Euskal Herria eraikitzen joateko gogo betea, betiere, lurraldeen ezaugarriak eta erakundeak errespetatuz.

Horra testuingurua, 2017ko abenduaren 18an, Sabino Arana Fundazioak “Ramon de la Sota eta haren gobernu egitasmo-abertzalea” izenburua eraman zuen mintegia antolatzea bultzatu zuena. Ondorioz, Hermes honetan, Gotzon Lobera, Eba Gaminde, Santiago Larrabazabal eta Andres Urrutia unibertsitateko irakasleek mintegian azaldukoak jasotzen dira. Era berean, duten interesagatik, Ramon de la Sotak, kargua hartzean, esan zituenak era bereizgarrian jaso dira, bai eta, Diputazioko legelariak, 1880ko abenduaren 22an, lau urte lehenago indargabeturiko erakundeen eta eskubideen defentsa eginez idatzitako testua oinarritzat hartuz, Bizkaiko Foru Aldundiak eginiko protesta ere, 1917ko maiatzaren 4an eginikoa.

Amaitu nahi dut aditzera emanez, Ramon de la Sotak kargua hartzeko ekitaldian beste alderdietako ordezkariak ez zutelako parte hartu... eta hala ere, guzti-guztiei eskua luzatu zien, iraganean berak ordezkatzeko zuten korrante politikoa sufritu zituenak Bizkaiko Diputazioaren atalburuan laga eta bizkaitar guztien alde eta onerako lan egingo zuela agindu ondoren. 1919. urteko hauteskunderen ondoren, Ramon de la Sotak ez zuen gobernatzen segitzea lortu, jatorri eta ibilbide desberdina zuten gainerako ordezkariak ez ziotelako horretarako aukerarik eman, hauteskundeak irabazi zituen arren... baina ez dio ardura, atzo erein zirenek gaur arte iraun baitute, eta biharkoaren zorua umotuko.

actuación del PNV. Todo ello con el objetivo de posibilitar el desarrollo del País Vasco, con el compromiso de aprovechar cualquier resquicio que nos ofrezca la situación actual, siempre sin renunciar a los derechos que históricamente le corresponden a este pueblo por su historia y con las miras puestas en su materialización, dejando a un lado los prejuicios, con actitud de llegar a acuerdos con diferentes, en la medida que esos acuerdos sirvan para hacer avanzar a este pueblo y sirvan para reconstruir en el tiempo el territorio del euskera, con la voluntad persistente de construir paulatinamente el País Vasco, respetando siempre las características de los diferentes territorios y sus instituciones singulares.

Fue ese mismo contexto el que impulsó a la Fundación Sabino Arana a organizar un seminario bajo el título “Ramón de la Sota y su programa nacionalista vasco de gobierno” en diciembre de 2017. Como resultado del mismo, en este número especial de la revista Hermes se recogen las exposiciones realizadas en dicho seminario por los profesores universitarios Gotzon Lobera, Eba Gaminde, Santiago Larrabazabal y Andres Urrutia. Del mismo modo, por motivo de su interés, se han incluido de manera diferenciada el discurso de Ramón de la Sota en la toma de posesión del cargo, así como la protesta que realizó la Diputación Foral de Bizkaia el 4 de mayo de 1917, tomando como base el texto redactado el 22 de diciembre de 1880 por los letrados de la Diputación en defensa de los derechos y las instituciones revocadas cuatro años antes.

Quiero terminar esta introducción diciendo que los representantes de los demás partidos políticos no tomaron parte en el acto de toma de posesión de Ramón de la Sota; aun así, tendió la mano a todo el mundo, aparcó los sufrimientos padecidos en el pasado por la corriente política que él representaba en el dintel de la puerta de la Diputación Provincial de Bizkaia, y trabajó a favor y en beneficio de toda la ciudadanía de Bizkaia. Después de las elecciones de 1919, Ramón de la Sota no pudo seguir gobernando, puesto que los demás representantes, de orígenes y trayectorias diferentes, no le dieron opción a ello, a pesar de haber ganado las elecciones... pero no importa, puesto que las semillas sembradas ayer han pervivido hasta hoy, sazonando la tierra del mañana.

JOSUNE URRUTIA ASUA (Bilbao, 1976)

Licenciada en BBAE por la Universidad del País Vasco (1995-2000), estudió Ilustración en la Escuela Arte Diez de Madrid (2011-2013). Tras diez años trabajando como diseñadora, actualmente se dedica exclusivamente a la ilustración.

Su pasión por el dibujo y sobre todo por dibujar, le han llevado a enredarse en proyectos de investigación e innovación relacionados con la práctica de dibujar y de hacerlo en colectivo. Proyectos como Mirar dibujando, Así me veo o dibujatoltrato. Realiza ilustraciones para proyectos editoriales, libros y diferentes aplicaciones, así como relatoría gráfica (una manera de recoger, transcribir, resumir, lo acontecido durante un evento a modo de crónica dibujada).

Entre sus publicaciones se encuentran: *Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer* (2017), *Así me veo* (2015), *Breve historia del pimiento para la vida extraterrestre* (2015) y *En el parque* (2012).